

ALKATEARI

Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarritzat hartuta, antzinako Geriatrikora sartzeko alboko eskailera batzuk eraikitzeari buruzko MOZIO ARRUNT hau aurkezten dio Udalbatzari, osoko bilkuran eztabaidatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Aiete, Errotaburu eta Ibaeta artean, Lugaritz pasealekuan dago kokatuta Topoaren Lugaritz geltokia. Auzo horietako herritarrei ematen die zerbitzua.

Herritar horietako batzuk geriatrikoa izandako eraikineko bizilagunak dira, eta buelta handia eman behar dute topotik atera eta haien etxeetara iristeko. Zebra-bidearen parean eskailera bat eraikiz gero, ordea, izugarri samurtuko genieke bizimodua inguru hartako donostiarrei.

Lursail horiek Eusko Jaurlaritzarenak dira eta hark egin beharko lituzke obrak horiek.

Hori dela eta, honako hau aurkezten dugu:

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Lugaritzeko topo-geltokiaren aurrean dagoen zebra-bidearen ondoan eskailera batzuk eraikitze proiektua gauzatu dezala, Geriatrikoa izandako eraikinera iristeko.

Donostian, 2022ko ekainaren 3an

Borja Corominas Fisas

Udaleko Talde Popularraren bozeramailea